

Proiektuetarako jarduerak | 3. Blokea: Kanpoko kolaborazioa duten hedatze-jarduerak.

Lehen Hezkuntza: 3 - 12 urte artean

Irratiaren Eguna




Adina 9 - 12 urte artean.



Zailtasun-maila Aurreratua



Denboralizazioa 8 saio



Etiketak Irratsaioa, albisteak, Internet eta sare sozialak segurtasunez erabiltzea.

JARDUERAREN DESKRIPZIOA

Herrialde ezberdinetako kideek Irratiaren Eguna ospatzeko audio-emanaldiak (podcastak) prestatuko dituzte nazioarteko taldeetan. Irakasleak aditu bat gonbidatuko du eta ikasleek elkarriketatzeko aukera izango dute.

HELBURUAK

- Sare sozialen eta Interneten erabilera arduratsua eta segurua lantzea, kazetaritzaren eta ikerketaren ikuspegitik.
- Hezkuntza-komunitateko gainerako kideak Internet ongi erabiltzeari buruz kontzientziaztea eta horri buruzko informazioa zabaltzea.
- Elkarlana sustatzea eta helburu komun baten parte izatearen garrantzia balioestea, kasu honetan irratsaio bateratu bat sortzea.

GAKO KONPETENTZIAK ETA ZEHARKAKO GAIAK

- Konpetentzia digitala
- Hizkuntza-komunikazioa
- Ikasten ikasteko konpetentzia
- Konpetentzia sozial eta zibikoak
- Heziketa zibikoa
- Kontsumitzailearentzako heziketa

CURRICULUMENKO EDUKIAK

- Informazioaren eta komunikazioaren teknologia arduraz erabiltzea.
- Testuak transmititzen dituen mezuak eta balioak identifikatzea eta kritikoki baloratzea.
- Elkarlana.

INKLUSIO-ALDERDIAK

Ikasle bakoitzak aukeratu du zer atal motatan lan egin nahi duen. Horrela nork bere interesen, beharren edo gustuen arabera audio-fitxategia sortu du.

AURREIKUSITAKO PRODUKTUAK / EMAITZAK

Irratsaio kolaboratiboa.

JARDUERAREN GARAPENA

ALDEZ AURRETIKO PRESTAKUNTZA

1. fasea. TwinSpace-a sortzea.

Dozentek, alde aurreko bilera batean, lan-irizpideak, denboralizazioa, irratsaioak izan ditzakeen atalak eta saioaren emisio-data ezarriko dituzte.

Aurrerago, kideen lana TwinSpace-n erakusteko orriak sortu dituzte. Kasu honetan, lau orrialde proposatu dira:

1. Gure burua aurkeztu dugu
2. Gure podcastak
 - a. Azpi-orriak sortu dira, horietan kokatutako podcastak biltzen dituen atal bakoitzaren izena dutenak.
3. Gure irratsaioa
4. Ebaluazioa



[Twinspace-rako esteka](#)



Tutoriala: [Nola sortu orri bat TwinSpace-n](#)



Tutoriala: [Nola sortu jardueren azpi-orri bat](#)

2. fasea. Foroan eztabaidak sortzea.

«Foroa» erlaitzean, irakasleek eztabaida bat irekiko dute irratsaioaren atal bakoitzeko, eta erabakiko dute zein irakasle arduratuko den elkarriketak gainbegiratzeaz eta dinamizatzaz.

Hona hemen atalen adibide batzuk: sare sozialen erabilera arduratsua eta segurua, nazioarteko albisteak, elkarriketak, kirolak, sukaldaritza, ingurumena...



Tutoriala: [TwinSpace-ko foroak](#)

3. fasea. Ikasleak TwinSpace-ra gonbidatzea.

Irakasleek kontu bat sortuko dute ikasle guztiek TwinSpace-n sartzeko aukera izan dezaten.



Tutoriala: [Nola gonbidatu ikasleak TwinSpace-ra](#)

PRAKTIKAN JARTZEA

1. fasea. Atalak aukeratzea. (1 saio)

Irakasleak ikasleei azalduko die zein garrantzitsua den datu pertsonalak pertsona ezezagunekin ez partekatzea, ezta sarean informazio pertsonala partekatzea ere. Irakasleak erabiltzaileen izenak eta pasahitza partekatzen dizkie ikasleei, eta horiek TwinSpace-ra sartu eta abatar bat gehituko dute profil-irudi gisa.

Ondoren, irakasleak gainerako kideekin aurrez ezarritako atalak erakutsiko dizkie ikasleei, eta ikasle bakoitzak zein ataletan lan egin nahi duen aukeratuko du.

Geroago, ikasleak «foroa» erlaitzera sartuko dira eta parte hartu nahi duten atalaren izena bilatuko dute. Hor beste ikastetxe batzuetako kideekin harremanetan jarriko dira, eta beren atala antolatze beharrezkotzat jotzen dituzten alderdiak finkatuko dituzte.



TwinSpace-ren irudia

Foro ?

Abre un debate y luego añade hilos de conversación para que responda el resto de participantes. Si lo deseas, puedes añadir una encuesta a la conversación.

 **Abrir un debate**

Últimos temas de discusión

Periodista Andrés

0 intervenciones • 07.07.2021

Lista de posibles secciones

0 intervenciones • 07.07.2021

Debate

☐ Ordenar

Foros archivados

Sección de Noticias Internacional

1 discusión(es)



Sección de Noticias Nacional



2. fasea. Podcasterako ikertzea. (1 saio)

Irakasleak sarean topatzen duten informazioa egoki erabiltzearen garrantzia azalduko du, eta testuak, irudiak eta bideoak jasotzen dituzten lizentzien garrantzia aipatuko du, horiek behar bezala erabiltzeko eta informazioa ateratzeko iturriak gehitzeko.

Ikasleek audio-emanaldiak egiteko informazioa bilatuko dute, eta aukeratutako ataleko foroan partekatuko dute. Ikasleek emanaldian erabiliko dituzten albisteak edo informazioak kontrastatu behar dituzte, egiazkoak ote diren egiaztatzeko eta albiste faltsurik ez zabaltzeko.

3. fasea. Audio-artxiboa grabatzea. (1 saio)

Ikasleek atal guztietako berriak amaitzen dituztenean, irakasleek erabakiko dute artxibo bakoitza zer klasetan grabatuko duten.

Irakasleak egokitu zaien sekzioaren berri emango die ikasleei, ekipoetan banatuko ditu eta ikasleak audioak grabatzen hasiko dira.



Irakasleak TwinSpace-ko dagokion ataleko azpi-orrian partekatuko ditu grabazioak gainerako kideekin.

TwinSpace

[Twinspace-rako esteka](#)

Irakasle batek audio-fitxategi guztiak bateratuko ditu. Audacity doako aplikazioa edo antzeko tresna bat erabil dezake horretarako.



Tresna: [Audacity](#)

4. fasea. Elkarrizketa. (1 saio)

Irakasleak komunikazioarekin edo irratiarekin zerikusia duen aditu edo pertsona interesgarri bat gonbidatuko du ikasgelara, komunikabideetako komunikazio-arauei buruz hitz egin dezan, arau horiek arduraz nola erabili eta ikasleei aholku batzuk eman diezazkien. Gaiari buruzko ezagutzak dituen senideren batek ere eman dezake hitzaldia.

Irakasleak galdera edo zalantzetan pentsatzeko eskatuko die ikasleei, adituari egiteko. Halaber, TwinSpace-n horren berri emango du eta adituarentzako galderaren bat idazteko aukera emango die kideei.

Hitzaldia amaitzean, ikasleek adituari galderak egingo dizkiote. Gainera, parte hartu duten jarduera azalduko diote, grabazioa erakutsiko diote eta iritzia eskatuko diote.

Irakasleak, adituaren baimena badu, elkarriketa irratsaioan sartuko du.

5. fasea. Irratsaioa ematea. (1 saio)

Irakasleak programa zein egunetan emango den jakinaraziko die ikasleei, eta ikasleek ekitaldia zabaltzeko eta sustatzeko materiala prestatuko dute. Irratsaioa jakitera emango da ikastetxean, ingurumarietan, ikastetxearen webgunean, sare sozialetan, familiei, hezkuntza-komunitateko beste kide batzuei...

Emanaldirako dozenteeek Listen2myradio doako baliabidea erabiliko dute.



Tresna: [Listen2myradio](#)

Programa erreproduzitzeko eta Listen2myradioko emisioarekin lotzeko, honako tresna bat edo antzekoren bat erabiliko dute: WinAmp, MBRecaster, Lunar Caster edo Mixxx.



[WinAmp](#)



[MBRecaster](#)



[Lunar Caster](#)



[Mixxx](#)

Irakasle batek irratsaio osoa partekatuko du Twinspace-ko «3. Gure irratsaioa» orrian.



[Twinspace-rako esteka](#)

EBALUAZIOA

Bideokonferentzia. (1 saio)

Jardueraren amaieran, kideak bideokonferentzia batean bilduko dira eta saioan zehar, ikasleek jarduerari buruz hitz egingo dute eta galdera batzuk egingo dizkiete ikaskideei.

Irakasleek aldeztu aurretik parte-hartzeen hurrenkera adostuko dute, eta galderak egiteaz arduratuko diren ikasleak izendatuko dituzte.

Hona hemen galderen adibide batzuk: Zer aparaturekin grabatu zenituzten artxiboak? Erraza edo zaila iruditu al zitzaizuen? Grabazioa ongi entzuten al da? Grabatzeko orduan zailtasunik izan al duzue? Aditua elkarrizketatzea gustatu al zaizue? Zein da gehien gustatzen zaizun programa?...

Irakasleak lineako galdetegi bat sortuko du ikasleentzat, eta bertan jardueraren alderdi nagusiak jasoko ditu: ikasleen inplikazio-maila, gogobetetze-maila, lankidetzaren lanaren balorazioa, saioen denboralizazioa, etab. Ondoren, emaitzak aztertu eta partekatuko ditu TwinSpace-ko «4. Ebaluazioa» orrian.



[Twinspace-rako esteka](#)

Azkenik, irakasleak TwinSpace-ren txat edo bideokonferentziaren bidez bilduko dira, lortutako emaitzen azterketa egiteko, alderdi baloratuenak azpimarratzeko eta etorkizuneko jarduerak hobetzeko proposamenak ezartzeko elkarrekin.



Tutoriala: [TwinSpace-ko txataren erabilera eta ezaugarriak](#)



Tutoriala: [Nola sortu online ekitaldi bat TwinSpace-n](#)

JAKITERA EMATEA

Hezkuntza-komunitateko kideen artean programaren emanaldia iragartzeko egin den zabaltzeaz gain, ikasleek gutun edo posta elektronikoko bat idatz dezakete egin duten lana azaltzeko eta grabazioa gertuko tokiko irratian batera bidaltzeko. Grabazioari buruzko iritzia ere eska diezaiekete, edo eskaini, irratian entzuleekin partekatu nahi badute ere.

TWinspace-KO TRESNAK / KANPOKO 2.0 TRESNAK

TwinSpace: orriak, foroa, online bilerak eta partaideak.



Beste tresna batzuk:

- Audioak editatzeko tresna: [Audacity](#)
- Interneten bidez audioak emateko tresna: [Listen2myradio](#)
- Interneteko emanaldiarekin bateragarriak diren musika-erreproduzitzailak: [WinAmp](#), [MBRecaster](#), [Lunar Caster](#) eta [Mixxx](#).